

## 1460. ZENBAKIDUN ALKATETZAREN DEKRETUA

### **Xedea**

2018. urterako mezularitza zerbitzua kontratatzea.

### **Aurrekariak**

Lehenengoa: 2018. urterako Bermeoko Udala, erakunde autonomo eta BERUALarentzat mezularitza kontratua esleitzeko proposamenak eskatu ziran sei enpresari: ACPSI, MRW, NACEX, SEUR, TOURLINE EXPRESS eta REDYSER.

Bigarrena: Gonbidatutako sei enpresetatik bik aurkeztu dabez proposamenak: ACPSI eta NACEX (Alaitrans Mensajeros, SL) enpresek hain zuzen.

Hirugarrena: 2017ko abenduaren 28an, Idazkaritza saileko AOTk erabagi proposamena igorri dau.

### **Argudioak**

Lehenengoa: Banaketa eremua, pisua eta banatze ordutegiaren arabera, oso proposamen ezberdinak aurkeztu dabez eta, azken hiru hileetako banaketak aztertuta, enpresa bien fakturazinoa zein izan zan kalkulatuta, NACEX enpresearena zentimo bi merkeagoa baino ez litzatekela izango ikusi da.

Dana dan, kontutan eduki behar da ACPSI enpreseak, 12:00ak baino arinagoko entregaren orde, 13:00ak baino arinagoko entrega daukala, eta biak bardin konputatu dirala.

Bigarrena: Bestalde, NACEX enpresak zapatuetan entregatzeko tarifa estandarizatu dauka eta ACPSI enpresak 10 euroko gehigarria aplikatzea proposatzen dau, aurretik kontsultatuta. Beraz, banaketa hori ez daukate estandarizatu edo normalizatuta.

Era berean, NACEX enpresak egun berean entregatzeko tarifak eskaintzen dauz, bai lurralderako eta baita autonomi erkidegorako, eta ACPSI enpresak ez dau halakorik eskaintzen. Eta zerbitzu hau oso gitxitan erabiltzen bada be, aukera izatea behar-beharrezkoa ikusten da, inoiz horrelako premiazko entregak egitea behar izaten dogulako.

Ganera, ACPSI enpreseak bestelako gehigarri honeek aurreikusten dauz:

- Bezzeroarena ez dan helbide batetan jasotzeagaitik.
- Hirien arteko banaketak, jasotze eta entrega bezzeroaren herritik kanpo egiten badira.



-Banaketa ordaindu bako garraio kostuagaz edo jaso-ordainezko igorketa bidez egiten bada.

- Aurrerapenagazko bidalketak.
- Gestinoagazko bidalketak.
- Ordutarte adosteagaitik.
- Entrega ordutegia adosteagaitik.

Eta horreek guztiak, zerbitzua garestiagotu egingo leukeez.

Hirugarrena: Arruntenak diran bidalketetan, NACEX enpresak tarifa hobeak eskaintzen dauz (Bilbora eta Gasteizera 19:00ak orduko 2 kilotik beherako paketeak entregatzeagaitik).

Eta 2018. urterako aurreikusten dan kopurua ez danez 18.000 eurora heltzen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen dauan 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 138.3 artikulua araber, bidezkoa da zuzeneko esleipena.

Laugarrena: Kontratu honen esleipena, indarrean dagoan epean eragiten dauzan obligazio guztiei aurre egiteko kreditu egoki eta nahikoa izatearen baldintzapean geratzen da, horrela izan ezean kontratua etenda gelditu daitekeelarik, kontratua indarrean sartu baino ekitaldi bat arinago hartzen dualako indar juridikoa.

## **Erabagia**

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, honako hau erabagi dot

LEHENENGOA: 2018. urterako mezularitza eta paketeria banaketa zerbitzua NACEX frankiziako Alaitrans Mensajeros, SL enpresari esleitzea, B01343441 IFZ zenbakiduna, aurkeztutako proposamenaren araber, eta ezaugarri honeekaz:

- ✓ Udalak bidaltzen dauen pakete edo mezu bakotxa hurrengo eguneko 19:00ak baino lehen entregatu beharko da, entrega arrunt moduan. Hori baino arinago entregatzeko eskatuko balitz, preminazko entregatzat hartuko da. Edozein kasutan, preminazko entregak, hurrengo eguneko 14:00ak baino arinago egingo dirala bermatu beharko dau enpresek, Autonomi Erkidego barruan bada. Autonomi Erkidegotik kanporako bada, 24 ordutan entregatu beharko dira gehienez.
- ✓ Udalak jasotzeko agintzen dauan pakete edo mezu bakotxa, egun bereko 15:00ak baino lehen jasoko dau esleipendunak eta, Bermeoko Udalera, aurreko paragrafoan ipinitako epeetan helduko dira gehienez (hurrengo eguneko 19:00ak baino lehen arruntak eta 14:00ak baino arinago premiazkoak, ez bada beste Autonomi Erkidego batetik ekarri behar dirala, kasu honetan 24 ordu egongo baitira gehienez).



- ✓ Udalak bideratutako eskari guztietan udal sailaren aipamena agertuko da, jagokon egiaztapena egin ahal izateko fakturazinoan (albaranetan sail bidaltzailea agertu beharko da).
- ✓ Nahiz eta banatutako fakturretan fakturatu, nortasun propioa daukien erakundeak diralako, Udalari egin jakon proposamen berberean emon beharko jako zerbitzua bai Bermeoko Udalaren Gizarte Ongizaterako Patronatuari, Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuari eta baita be BERUALA, SAri, Bermeoko Udalaren menpeko erakundeak diralako.
- ✓ 2018. urterako zerbitzuaren tarifak esleipendunak egindako proposamenaren arabera izango dira.
- ✓ Kontratuaren iraupena, 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

BIGARRENA: Esleipendunari jakinarazotea udalagaz izango dauzan ahozko eta idatzizko hartu-emonak euskeraz izango dirala eta fakturarik edo bestelako idazkirik aurkeztu behar dauenean euskeraz aurkeztu beharko dauzala.

HIRUGARRENA: Interesdunei eta kontu hartzailetzari Dekretu honen berri ematea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran Dekretu honen berri ematea.

Bermeon, 2017ko abenduaren 28an

ALKATEA

NIRE AURREAN  
IDAZKARI  
AKZIDENTALA

Idurre Bideguren Gabantxo

Karmele Muñoa Arrigain

